



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: FLAUTA

2024-3-11

Nori zuzenduak?

Graduko Flauta interpretazio ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika ikasleei zuzenduak.

Sarrera probak 2024-2025 edo 2025-2026 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2024ko martxoaren 4an** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Flauta interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila eta ikasketa horietara sartzeko errepertorio egokia

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

Miguel Ángel Angulo, Álvaro Octavio y Bruno Claverie

Pedro J. Rodríguez-en parte-hartzearekin

9:30 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio

10:30-14:00 **Musikene**ko ikasleei eta jardunaldietako ikasle aktiboei eskola irekiak flautako hiru irakasleekin. Lehentasuna izango dute sarrera proba 2024/2025 ikasturtean egin nahi dutenek.

14:30 **Musikene**ko flauta ikasleen emanaldia, pianoan Pedro José Rodríguez laguntzaile dutela.

16:30 **Musikene**ko ikasleei eskola irekiak Miguel Ángel Angulo y Álvaro Octavio irakasleekin. Jardunaldian izan eman duten ikasleek entzule bezala parte hartu dezakete.

Flauta jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago jasotzeko jarri harremanetan Urko Arozena Haize eta Perkusio Departamentuko buruarekin:
dpto.vientopercusion@musikene.net